

## PROTOKOLOA

**Euskalema Itzultzaileen hileroko Bilera****2009ko martxoaren 27 an, 17:00****Lekua:** Hikateneoa, Bilbo**Gaia:** “Peru Tximaluze”, “Struwwelpeter”-en itzulpena**Partaideak:** Jürgen Lange, Jurek Ziemkiewicz, Petra Elser, Feliciano Pelaez**Materiala:** –Hoffmann Heinrich, *Peru Tximaluze*, Zeberio (Bizkaia), Zeberio Udal, 2008;–Hoffmann Heinrich, *Der Struwwelpeter*, Frankfurt, 1847–*Pedro Melenas*, Palma de Mallorca, 1987. Victor Canicioren espainierako itzulpena.–*Struwwelpeter*, Mark Twainen ingeleserako itzulpena eta–*Pierre L'Ébouriffe*. Frantseserako itzulpena. [www.struwwelpeter.com](http://www.struwwelpeter.com) tik.

–Hans-Joachim Wilkeren komentarioak

Itzulpenaren bi autoreekin elkartu gara Petra eta biok oso elkarrizketa interesgarria izan da. Itzulpena nola egin zuten eta argitaratzera nola heldu ziren kontatu digute lehenik. Gero, itzulpena analisatu dugu eta Jürgenek dio hurrengo edizio baterako zuzenketa baliozkoak atera direla.

**Best sellerra**

*Der Struwwelpeter* bere garaian eta beranduago ere *best seller* bat izan zen moduan *Peru Tximaluze* ere *best seller* bihurtzeko bidean dago, Durangoko azokan gure standean gehien saldu zen liburua izan zen eta asoziazioen beste standean ere asko saldu zituzten. Jürgenek ahal duen leku guztietan saltzen saiatzen da, marketing oso ona egiten du, ama askok beren umeei irakurtzen diete jada magalean eserita Peru Tximaluze eta umeei behin eta berriz eskatzen diete gurasoei Peru Tximaluze irakurtzeko. Arratia bailarako eskola batean eskola liburu bezala ere erabiltzen dute. Liburua aurkezteko hitzaldi asko egiten ari dira eta berak liburuaren zenbait ale ekarri dizkigu elkartekoei saltzeko, Petrak, Rassok eta hirurok ale bat erosi diogu, bederatzi eurotan. Itzultzaileek ez dute hala ere dirurik jasotzen eta, nahiz eta edizioaren eskubideak haienak izan Arratia bailarako Zertu Kultur Elkarteak jasotzen ditu diru guztiak. Elkarte horrek aldizkari bat ateratzen du inguruko berriekin, bizkaieraz idatzitakoa, *Zertu*, eta bailara osoan banatzen dute, harpidetza egin daiteke ere astekaria musu-truk ematen dute. Laster interneteko edizioa ere izango du.. Hala ere, liburutegietan ez dago salgai eta banaketa lagun eta ezagunen bitartez egiten dute. Orain arte bezala ondo saltzen jarraitzen badute Jürgenek dio Elkar-ekin edo editorial ezagun batekin beste argitalpen bat egingo dutela. Liburua tapa gogorrekoa da eta orrialde lodiak eta plastifikatuak dituena, umeentzat egokia izan behar zuela argi zuten hasiera hasieratik. Horrela, argitalpen “libre” bat eginaz, liburua bederatzi eurotan sal dezaketela dio, argitaratzaile profesional batek atera ezker bikoitza eskatu beharko zela dio. Struwwelpeter obraren egokitasunari eta gaurkotetasunari buruz ados ginen denok. Denoi gustatzen zaigu nahiz eta umeei oso zigor krudelak jaso, batzuetan gertakari oso odoltsuak agertu eta heriotza ere bai. Jürgenek dio hiru urte eta gehiagoko umeei ama edo aitaren magalean eserita entzuten dutela Struwwelpeterraren, Peru Tximaluzeren, irakurketa eta ez direla beldurtzen, par egiten dutela eta behin eta berriz eskatzen dutela historiak irakurtzeko.. Der Anti-Struwwelpeter<sup>1</sup> badago

<sup>1</sup> 1970, F. K. Wächter, *Der Antistruwwelpeter*, Diogenes Verlag

**Protokoloa**

Struwwelpeterraren aurkako ume-liburu antiautoritario bat, baina Jürgenek ustez hori ez da egokia umeentzat, berari ez zaio gustatzen. Jürgenek bere itzulpena argumentu askorekin defendatzen du eta itzulpenak sariak jaso behar dituela esan zuen

**Struwwelpeter Museum**

Itzuli eta argitaratzeko eskubidea izateko liburuaren eskubideak dituen Struwwelpeter Museoarekin negoziatu behar zen eta Jürgenek dio hasieran dirua nahi zutela baina negoziatu ondoren museoarako 50 ale bidalita konformatu direla. Der Struwwelpeter haur liburuan marrazkiek garrantzia handia dute, museoak CD bat bidali zien imajinen artxiboekin, horiek gero liburuan inprimatzeko erabili dituzte. Marrazkietan akats nabarmena dago, pena da. Azkeneko historiaren azken marrazkia falta da eta azken aurrekoa errepikatuta dago.

**Itzulpenaren sorkuntza**

Jürgenek dio lagunarteko afari batean hizketan gaia atera zela eta Struwwelpeter itzuliko zuela esan zuen. Hasieran bakarrik hasi zen itzultzen baina denbora gutxian konturatu zen ez zela gai. Laguntza bilatu zuen eta Jurek aurkitu zuen, bertsolaria eta gaztea, bera ere Arratia bailarakoa. Jurek-ek ez daki alemanez, espainoleko bertsioa begiratu zuen, baina Jürgenek mezua itzultzen zuen eta Jurekek forma ematen zion. Elkarrekin itzuli dute.

**Itzulpenaren analisisa**

Lehenik, beti bezala Hans-Joachim Wilkeren komentarioei buruz hitz egin dugu eta Jürgenek dio arrazoia duela ez dutela errespetatu silaba zenbakiak, hitzak luzeagoak dira euskaraz, eta gehienetan luzeago izan dira itzulpenaren bertsoak, ilara gehiagorekin, noizbait motzagoak ere bai. Analisisan horri ez diogu garrantzi gehiegirik eman. Jürgenek aipatzen du pena duela Wilhelm Busch-en Max und Moritz<sup>2</sup> dagoeneko itzulita egotea, hori ere itzultzea gustatuko litzaioke.

Izen propioei begiratu diegu lehenik. Izenak ez dira saiatu itzultzen, egokitu egin dituzte euskal izendegira, umeentzako arrotzak gerta ez zitezen. Aukera egokia dela deritzogu. Adibidez: Friedrich Santi da, ez da santu bat, gaiztakeriak egiten ditu etengabe. Eta Hans guckt in die Luft Amets ameslaria da. Katarramiau eta mixina ere katuentzako izen egokiak dira. Hirugarren historian Der Nikolaus agertzen da eta egia da San Nikolas ez dela ezer euskal umeentzat, oriotarrentzat jaiak dira, besterik ez. Orduan Olentzero eman dute, baina olentzero ez da liburuaren marrazkian agertzen dena.

**Zati batzuen komentarioak**

Lehen historian alemanezko jatorrizkoan ez du esaten zakurra zaintzailea denik, euskaraz zakurra zaintzailea da bere sardarekin, aukera ona da. Hitzez-hitzeko itzulpena bertsozko liburu batean ezinezkoa da, hemen esaldiak ere bere horretan ez dira itzultzen baina mezua ematen da eta bertsoak sortzen dira. Gainera historia denak marrazkiez lagunduta datoz, gertatzen dena argi dago eta batzuetan testuak marrazkiak deskribatzen ditu. Beste hizkuntzetako bertsiotan hori ere nabaria da, ez da testua bere horretan itzultzen. Batzuetan marrazkietan agertzen dena itzultzen da nahiz eta alemanezko jatorrizko testuan ez egon.

---

<sup>2</sup> 1990, Pello Zabaletak itzulia-

Txakurra, ordea, borroka bukatuta han zegoen mahaian Santiren lekua hartuta, jan eta edan, ardo eta tarta, hartu zuen betekada aparta. Baina txakurra nola beti izan den zaintzaile ona, orain berak eramaten du sarda hara eta hona.	Der Hund an Friedrichs Tischchen saß, Wo er den großen Kuchen aß; Aß auch die gute Leberwurst Und trank den Wein für seinen Durst. Die Peitsche hat er mitgebracht Und nimmt sie sorglich sehr in acht.
--	--

Pantxike eta pospoloak historian Pantxike erretzen ari da, alemaneko bertsioan dramatismoa nabariagoa errepikapenaren bitartez "Steigerung" a lortzen da, euskarazkoak indar gutxiago du.

Ene, ene! Momentu batean soinekoa su eta ketan! Gero ilea joan zen errez eta horrela gorputz osoa berez.	Doch weh ! Die Flamme faßt das Kleid, Die Schürze brennt; es leuchtet weit. Es brennt die Hand, es brennt das Haar, Es brennt das ganze Kind sogar.
---	--

Jurek eta biok ados gaude ume beltzaren historian ume beltza izatea zerbait txarra balitz bezala agertzen dela, jatorrizkoan eta euskaraz. Bera ez omen da erruduna beltza izateagatik:

Orduan hurbildu zitzaien kalera oparik dakartzan Olentzero bera, etas esan zien hiruretako bakoitzari "Entzun ondo eta egon adi! Joan zaitezte di-da batean eta utzi beltza bakean. <b>Erruduna ez da bera,</b> ez delako zuria zuen antzera!". Baina hirurek kasurik egin ez eta jarraitu zuten lehengo legez.	Da kam der große N i k o l a s Mit seinem großen Tintenfaß. Der sprach : "Ihr Kinder, hört mir zu Und laßt den Mohren hübsch in Ruh' ! <b>Was kann denn dieser Mohr dafür, Daß er so weiß nicht ist wie ihr ?"</b> Die Buben aber folgten nicht Und lachten ärger als zuvor Über den armen schwarzen Mohr
--	--

txuria izatea ona omen da eta beltza txarra.

Zergatik "jostailua" eta ez "uztaia"? Uztai borobila?

eta Txominek bere jostailuarekin batera egin zuen gauza berbera:	Und auch der W i l h e l m war nicht steif Und brachte seinen runden Reif.
---	---

Borrokatu bai, baina zergatik heroien antzera?

Olentzerok laster jarri zituen igerian tinta beltz artean tintontzian, eta beltz-beltz jarri ziren goitik behera nahiz ta <u>borrokatu</u> <b>heroien</b> antzera.	Den Wilhelm und den Ludewig, Den Kaspar auch, der <b>wehrte</b> sich. Er tunkte sie in die Tinte tief, Wie auch der Kaspar "Feuer" rief. Bis überm Kopf ins Tintenfaß Tunkt sie der große Nikolas.
---	---

Jureki galdetu diogu zergatik erabiltzen duen horrenbeste "bapo", 3 aldiz agertzen da itzulpenean lerroaren bukaeran, gero bertsoa egiteko, honetan egokia da:

barre egin zuten <b>bapo</b> bestea oso beltza zelako	Die schrie'n und lachten alle drei, Als dort das Mohrchen ging vorbei, Weil es so schwarz wie Tinte sei !
Laugarren egunerako ez zen normala, bakarrik hezurra eta azala! Baina burugogor jarraitzen zuen <b>bapo</b>	Am v i e r t e n Tage endlich gar Der Kaspar wie ein Fädchen war. .

nahiz ta ezingo zuen izan luzerako.	.
Pantxike etxean bakarrik zegoen <b>bapo</b> bere gurasoak kanpoan zeudelako.	P a u l i n c h e n war allein zu Haus, Die Eltern waren beide aus.

Beste azken biak ez dirudite horren egokiak, baina errima egiteko errekurtsio onak dira.

Hurrengo honetan "Hori" agian "Hau" beharko zuen?

<b>Hori</b> gertatu zen orduan etxeoandrea leihoan zegoen kafe-katilua eskuan. Erbiak ehiztariari gogoz egin zion tiroa eta emakumeak oihu egin zuen: "Jainkoa!".	Des Jägers Frau am Fenster saß Und trank aus ihrer Kaffeetass'. Die schoß das Häschen ganz entzwei, Da rief die Frau : "O wei ! O wei !"
---	---

Hemen, alemanezko jatorrizkoan erbiakumeak koilarea du eskuan, baina euskarazkoan ez, marrazkian ikusten da koilarea baduela, ordea.

Kafea, sustoarekin batera, jausi zen leihotik behera, eta leihopean zegoen erbiakumea izan zen gehien sufritu zuen errugabea. "Leihopean jolasean nenbilen lasai, zergatik erre didate sudurra, ai!".	Doch bei dem Brünchen heimlich saß Des Häschens Kind, der kleine Has'. Der hockte da im grünen Gras; Dem floß der Kaffee auf die Nas' Er schrie: "Wer hat mich da verbrannt ?" Und hielt den Löffel in der Hand.
---	---

Historiarik odoltsuena eta motzena Lurtxu edo Daumenlutscher Konradena da. Jürgenek faborittoa ere bada. Jurek eta Jürgenek diote buelta asko eman ziotela itzulpen horri. Atal batean euskarazko bertsioak ez du indar askorik:

Bat-batean entzun zen kolpea eta ireki zen atea! Han zetorren jostuna artaziekin nahiz ta lurtxu txikiak sinetsi ezin. Esku biak odoletan, nolako mina! Lehenengo ezkerria eta gero eskuina, lurrean geratu ziren bi erpuruak bere eskutik galduak!	Bauz ! Da geht die Türe auf, Und herein in schnellem Lauf Springt der Schneider in die Stub' Zu dem Daumen-Lutscher-Bub. Weh ! Jetzt geht es klipp und klapp Mit der Scher' die Daumen ab, Mit der großen scharfen Scher' ! Hei ! Da schreit der Konrad sehr.
Eta ama etxera heldu zenean, bere haurra nola topatu zuen han: triste eta penagarria atzamar gabeko Lurtxu berria.	Als die Mutter kommt nach Haus, Sieht der Konrad traurig aus. Ohne Daumen steht er dort, Die sind alle beide fort.

Euskarazko itzulpenak ez du ia soinurik, ez da ikusten noiz mozten dizkion erpuruak, erpururik gabeko Lurtxu soilik agertzen da. Eta marrazkian, lurrean ez dira ikusten erpuruak! Historiaren bukaerak ere indar gutxi du, Lurtxu berria, penagarria ez dihoaz bat.

Praixku soparik ez historian alemanezko errepikapena ez da egiten: "**Nein, meine Suppe ess' ich nicht !**". Eta edukia emateko askoz ere luzeago dira bertsoak, baina euskaraz ez da erraza horren hitz gutxiekin kontatzea gertatzen dena:

Laugarren egunerako ez zen normala, bakarrik hezurra eta azala! Baina burugogor jarraitzen zuen bapo nahiz ta ezingo zuen izan luzerako.	<b>Am v i e r t e n Tage endlich gar Der Kaspar wie ein Fädchen war.</b>
Azkenean bosgarren eguna bihurtu zen beltza bezain iluna, ez zuenez ezer sartu sabel horretan	Er wog vielleicht ein halbes Lot - Und war am f ü n f t e n Tage tot

gosez hil zen mutikoa bertan.	
-------------------------------	--

Zappel Phillipen historian garaiko familien eredia agertzen da, marrazkian batez ere. Bukaeran aita da haserretzen dena, ama pasibo agertzen da une oro, keinuetan ere bai. Baina euskaraz zergatik hasi behar du ba negarrez?

Bat-batean dena erori zen lurrera, eta oihi egin zuten denek batera! Segidan tximurtu zen aitaren kopeta, ama isilik zegoen bitartean mahaira begira negar artean.	Doch was hilfts ? Zu gleicher Zeit Fallen Teller, Flasch' und Brot. Vater ist in großer Not, Und die Mutter blicket stumm Auf dem ganzen Tisch herum.
--	---

Amets ameslariaren ipuinean Amets erori egiten da zakur handi bat aurrean sartzen zaiolako, baina euskaraz Ametsek galtzontziloetan kaka egiten du, alemanezko jatorrizkoan ez d aho gertatzen!!

Bere bidetik egun batean txakur handi bat etorri zen bakean, baina Amets inork ez zuenez ohartarazi aurrez aurre topo egitean, zapaldu egin zuen kasi! Orduan ihes egin zuen zarataka galtzontziloetan <b>eginez kaka!</b>	Kam ein Hund daher gerannt; Hänslein blickte unverwandt In die Luft. Niemand ruft: "Hans gib acht, der Hund ist nah !" Was geschah ? Bauz ! Perdauz ! - da liegen zwei ! Hund und Hänschen nebenbei.
---	---

Azkenik, liburuaren bukaerako testuak Jesus umea du titulutzat. Ez da alemaneko jatorrizkoan titulurik agertzen. Interneteko Struwwelpeter Museum-eko orrialde ofizialean testu hori "Vorwort" moduan agertzen da baina euskarazkoan bukaerara ekarri dute. Edizio desberdinetan, batzuetan aurrean izan da eta beste batzuetan atzean. Jürgenek oinarritzat hartu duen edizioan bukaeran agertzen zen.

Baina alemanez esaten da: "Wenn die Kinder artig sind, kommt zu ihnen das Christkind;" euskaraz: "Jesus umea goitik dagoenez begira haurrak formal egon behar dira." Kontua da Euskalerrian Jesus umea etorri eta opariak ekartzen ditu ala goitik begira egoten da soilik, marrazkian agertzen den bezala, aingeru goardako bat izango balitz bezala?

### Ondorioa

Itzulpena asko kritikatu dugu alderdi onak gutxiago azpimarratu ditugu, baina Jürgen eta Jurekek eskertzen dute hori, orain arte kritika gutxi jaso dituzte.

Ondorio bezala Peru Tximaluze itzulpen dinamiko, egoki eta oso irakurgarri bat dela uste dugu, erraz irakurtzen dena eta euskara egoki eta oso ulergarria erabiltzen duena. Hala ere, agian poetikoki eta literarioki originalaren parera ez da iristen.

Hurrengo Bilera Baionan izango da Itxaro Bordarekin, baina agian ez da hilaren 24ean izango, maiatzaren 8an agian, konfirmatu gabe dago.

Feliciano Pelaez